

## SGAEri buruz bi hitz

Denok ezagutzen dugu SGAE, tipo atseginez osaturiko kuadrila hori. Guk ia edozer erosten dugunean dirua ematen diegu erosteagatik bakarrik (kanon delakoa, iPod, dvd, cd, inpresora... eta abarreko aplikatua), nahiz eta guk gure erabilpen pertsonalerako erabili; esate baterako: nik NIRE argazkiak cd batera pasa nahi baditut, zergatik ordaindu behar diet eurei NIRE argazkia cd batera pasatzeko, ez badute nirekin zerikusia?

Ramoncín bihurtu da orain jabego intelektualaren sasi-zalduna, Creative Commons, linux eta "pirateriaren" aurkako gurutzada azkenerarte eraman nahi duena, bide batez, gure erabilpen pribaturako diren artikuluekin bere sakela betez. Berdin dio Europako parlamentuak kopia pribatuak zilegiak direla esatea (Ikus hemen), izokinaren mduan jarraituko baitu, korrontearen kontra igeri eginez.

Beraz, hemendik, SGAEren kontrako boikot kanpaina baterako egiten dizuet dei, esan EZ kanonari, EZ liburutegietan maileguak ordaintzeari, esan EZ gure diruarekin poltsikoak betetzen dituzten jabego intelektualaren sasi-zaindariai... Zoritxarrez, zerrenda honek luzerako jo dezake.

Hona hemen, nola egin kalte SGAEri:

- Cd, DVD eta halakoak internet bidez erosten (merkeago da eta ez da kanonik ordaintzen) Hemen esate baterako
- Udal liburutegi askotan sinadura bilketak egiten ari dira dohaineko maileguaren alde, hurbildu zaitez eta sinatu!
- Deitu SGAEra kanona zergatik ordaindu behar den kanona norberaren kopia pribatuak egiteko (adib. udako bidaiko argazkiak, legalki erositako musika iPod-era pasatzea...)
- Egin klik hemen: [www.sgae.es/search/search-es.jsp?idioma=es5](http://www.sgae.es/search/search-es.jsp?idioma=es5)